

# INGURUNEAREN MUNDUKO BABESPENERANTZ: VENEZIAKO IV. KONFERENTZIAREN KRONIKA

Jasone Urkola eta  
Maite Uriarte

## I. Sarrera

Oraindik orain, hilabete honen hasieran, 1994. uztailaren 8tik 10ra, Napoliko Gailurrean, munduko herrialderik industriaztatuenak bildu dira. Bilera horretan, besteak beste, Chernobylen eta beste zentral nuklear sobietarren etorkizuna eztabaidatu da. Dolarrak milioika beharko dira zentral hori itxi ahal izateko eta, horrez gain, leherketa berria gertatzeko arriskua berehalakoa da, jakitunek diotenez.

Gogoratuko duzue, 1986. go apirilean gertatu zen Chernobyngo hondamendia. Momentu horretatik aurrera, argi geratu zen antzeko katastroferik izanez gero, ezin izango zela nazio soil baten arazotzat hartu, baizik eta haren mugetatik kanpo hedatuko zela.

Halako istripu ugari gertatu dira ondoren eta nazioarteko gatazkak sortu dituzte. Adibide gisa, aipa ditzakegu:

- \* 1984.n Indian Bhopal planta kimikoan izandako istripua
- \* 1988.n Suitzan Sandoz izeneko beste planta kimiko batean gertaturikoa
- \* 1989.n Bahia Paraiso itsasontziak Antartiarrean eta Alaskan Exxon Valdez-ek eginiko arrolio isurketak
- \* 1991.n Genoan Haven-ek egina
- \* 1991. urte horretan Golkoko Gerratean sutu ziren arrolio potzuak...

Esan bezala, istripu hauen eta gainerantzekoen ondorioak nazioen mugetatik at zabaldu dira. Hori dela-eta, gero eta garrantzi handiagoa hartu du nazioarte mailan inguruneari, benetan, babes eranginkorra emateak.

Rio de Janeiron 1992. urtean izandako Gailurra pauso bat besterik ez zen izan. Hurrengo milurtekoak aldaketa politiko eta instituzional sakonak eskatzen ditu. Horretarako gobernuak konpromezu gogorrak hartu beharko dituzte. Baina hori ez da nahikoa izango: Nazio Batuetan berrantolaketa-prozesu hedakorra ezinbestekoa da. Hau da, organo berezi eta iraunkorrak sortu beharko dira, mundu mailan ingurune gaitaz arduratuko direnak.

Halere, beste beharizan bat ere nabari da. Orain arte, nazioarteko orden juridikoan, Estatuetak gobernuak besterik ez dute parte hartzerik izan. Hemendik aurrera, bi elementu berri kontutan hartu beharko dira maila horretan. Alde batetik, pertsona bakoitza, gizabanakoa; honek ingurunearen gizaeskubidea duela uste da. Bestetik, berriz, nazioarteko elkarteak; hau entitate juridiko independentetzat hartzen badugu, Estatuetak gobernuak bere aurrean erantzun beharko dute.

Guztiok dakigunez, gobernuak "bi aurpegiko" jarduera daramate gaur egun. Nahiz eta, itxuraz, ingurunearekiko beraien arreta handia izan, benetan, interes ekonomikoak eurentzat garrantzitsuagoak dira.

Puntu honetan, auzitegiak protagonista bihurtuko dira. Izan ere, funtsezko pisu juridiko-politikoak daukate, arauak aplikatu eta, multzo sozial ezberdinetatik mezuak harturik, aldaketalana baitaramate.

Zertzelada hauek sarrera gisa eman ondoren, Venezia-ko Konferentziaren berri eman dezagun.

1988. urtean hasi zen Ingurunearen Nazioarteko Auzitegiaren aldeko sentsibilizazio-kanpaina. Venezia-ko IV. Konferentzia hau kanpaina horretan, oraingoz, emandako azkeneko pausua besterik ez da.

## II. Nola sortu eta bilakatu da ekimen hau

Esan bezala, Ingurunearen Nazioarteko Auzitegiaren beharra orain dela sei urte hasi zen gorpuzten. Erroman, 1988. otsailean, eta ekimen pribatuaren ondorioz, Batzorde bat sortu zen. Batzorde honen eginkizuna auzitegiaren arazoa aztertzea izango zen, auzitegia nolakoa izan behar zuen ez zegoen argieta. Denborarekin, hau da, 1992.n Batzorde hau Ingurunearen Nazioarteko Auzitegiaren aldeko Fundazio bihurtu da.

Venezia-ko IV. Konferentzia aipatu dugu. Horrek esan nahi du, noski, aurretik beste hiru egon direla.

Lehenengoa 1989. apirilean Erroman izan zen, eta proposamen hauek luzatu ziren Konferentzia horren amaieran:

- \* inguruneari buruz mundu mailako bilkura bat egitea
- \* ingurune-eskubidea giza-eskubide moduan bermatzea, eredia Giza-Eskubide Erromako Ituna (1950) izanik
- \* Nazio Batuen Erakundearen barruan bi organo sortzea: Ingurunearen Nazioarteko Agentzia eta Auzitegia. Azken hau, instituzio iraunkorra izango litzateke, Hayako Nazioarteko Justizia Auzitegiaren eta Estrasburgoko Giza-Eskubideen Auzitegi Europarraren konbinaketa, gutxi gora behera. Estatuei ezezik, partikularrei eta organizazio ez gobernatutari ere, Auzitegiarekiko legitimazioa emango litzateke

\* nazioarte mailan ingurune informazio politika bat garatzea

Bigarren konferentzia Firenzen 1991. maiatzean antolatu zen. Eztabaida sakontzen Joan zen Konferentzia honetan eta Auzitegiaren prozedura-arau oinarrikoak finkatu ziren. Aurreko Konferentzian hartutako erabakiak baieztatu ziren bigarren honetan.

Hirugarrena, berriro ere Erroman izan zen, 1992. martxoan, eta aurretik egindako bidea berretsi besterik ez zen egin.

Hiru konferentzia hauen tartean, gaia nolabait ukitu zuen Bilkura anitz izan zen. Mundu mailan:

- Zazpien Gailurra, Parisen, 1898. uztailian.
- Sienan eginiko Foruma, 1990. apirilean.
- Ingurunearekiko Munduko Parlamentuarteko Bilkura, Washingtonen 1990. maiatzean.
- Ingurune Zuzenbide Elkarteen Munduko Bilera, Limoges-en, 1990. azaroan.
- Ingurunearen Nazioarteko Zuzenbideari buruzko Bilera, Hagan, 1991. abuztuan.
- Montevideo-ko Egitarauari buruzko Bilkura, Rio de Janeiro, 1991. azaroan (Ingurune-Zuzenbidea garatu eta aldizka berrikusteko Egitaraua).

Nazio Batuen Erakunde mailan:

- Batzar Orokorren Deklarazioa, 1989. abenduan.
- Lurraren Gailurra, Rio de Janeiro, 1992. ekainean.

Europa mailan:

- 1991. eta 1992. urteetan, Parlamentu Europarren aurrean bi Ebazpen proposamen tarteratu zituzten (bata, 40 eta bestea, 9 parlamentukidek) Parlamentu horrek Auzitegia sortzea bultzatzea, baina ez ziren aurrera atera.
- 1992. otsailan, hori bai, Ebazpen bat onartu zen, Collins Ebazpena deitua. Bertan egungo Nazioarteko Zuzenbidea aldatzea eskatzen zen.
- Parlamentu Europarrak ondoren ere bere interesa agertu izan du beste zenbaitetan; adibide gisa honako hauek:

\* Ikasketa eta Ikerketa Sailak eskaturiko txosten batek Elkarte Europarrak auzitegiaren alde eraman zezaketen jarduera agertzen zuen.

\* Komisioak ingurune-kalteari buruz egindako Liburu Berdea aurkezterakoan

\* Kanpo-Arazoetako Batzordean Nazioarteko Auzitegi Kriminala eztabaidatzerakoan.

### III. Kongresuaren deskribaketa

Ikusitako pausuak eman ondoren, Veneziako IV. Konferentzia antolatu zen, aurtengo ekainean, "Ingurunearen munduko gobernurantz" izenburupean. Azken bilkura honetan, gobertu eta nazioarteko erakundeez gain, organismo ez-gobernutarrak, juristak, zientzilariak, teknikariak, politikariak eta Administrazioan gai honen arduradun direnak batu ziren.

Kongresoa bost foro eta plenoetan antolatu zen. Foroek sektore ezberdinak ukitzen zituzten: arlo politiko-ekonomikoa, juridikoa, soziala, kulturala eta etikoa-erlijioso-zientifikoa. Foro ezberdin horien helburua, bakoitzak bere ikuspegi propioetik begiraturik, ingurunearekiko oraindik bete gabe dauden zuloak sakonki aztertu eta irtenbideak ematea zuten. Plenoetan, berriz, Foro bakoitzean parte hartutako arloko eztabaida amankomuna ematen zen.

I Forumean aztertutakoak, politika eta ekonomiak ingurune-kaltea aurrebabesteko ematen dituzten tresnak izan ziren. Orain arte, politikaren eginkizun zaila izan da ingurunearen eta garapenaren interesen artean oreka mantentzea. Baina, gaur egun, nagusitzen ari da garapen hori ingurunearekin bateratu behar denaren ideia. Alde batetik, gizartearen gero eta indartsuagoa da bizitza-kalitate hobea baten eskaria. Bestetik, arrazoi ekonomiko garbiak daude. Guztiok dakigunez, ekoizpena eta kontsumoa nazioartekotu egin dira eta prozesu horrekin batera orain arteko arau ekonomikoetan aldaketa bat egin behar da. Bestela, teknologia berriak sartzen dituzten enpresariak galtzen aterako dira, gainerantzekoek ingurune kosterik ez badute barneratzen. Garapen ekonomikoaren etorkizuna kolokan jarriko da, oinarri osasuntsu bat ez badu, hau da, kaltetutako baliabideekin eta osasunik gabeko gizarte batekin jokatzeko badu.

III. Forumean arazo soziala izan zen aztergai. Beste hitz batzutan, demokrazia ekologikoa nola ezarri. Gizartea da, maila guztietan, ingurune-kaltea zuzen-zuzenean nabaritzen duena. Horregatik, logikoa dirudi, gizarte horrek paper dinamiko bat eskatzea, instituzioekin lankidetzan ari ahal izatea. Lankidetzak hau informazio, partaidetza eta Administrazioa heltzearen bitartez bideratuko da.

Arte Ederren eta kulturaren esparruak landu ziren IV. Forumean. Aski ezaguna da aintzinatik datozen ohiturak eta balio kulturalak toki askotan galtzearen daudela. Gaur egungo zibilizazioaren bizimoduak dakarren kutsadura ez da fisikoa bakarrik, baizik eta kulturala ere bai. Turismoa eta kontsumoa izango dira horiek erretzen duten tresnak.

V. Foruma etiko-erlijioso-zientifikoa izan genuen. Beharrezkoa dugu ingurunearen etika berri bat. Etika hori gorpuzteko ezinbestekoak diren oinarri antropologikoak aztertu ziren hemen. Arazoak honetan datza: nola gutxitu kontrolik gabeko garapen batek (orain ematen ari denak, hain zuzen ere) ekarritako ondorio kaltegarriak.

Amaitzeko, II. Foruma aipatu behar dugu. Bertan ingurunearen problema juridiko-instituzionala eztabaidatu zen, horregatik lehentasunezko tratua eman zitzaion Forum honi. Lehen esan bezala, Ingurune-arauak aplikatzerakoan auzitegiek paper oso garrantzitsua dute, epailea gizartearen arlo ezberdinetatik datozkion mezuak hartu eta bideratzen ari delako. Eredu hau da gure kronika honen ardatzarekin harremanik estuenak dituen: hau da, Ingurunearen Nazioarteko Auzitegiarekin, hain zuzen ere.

## **IV. Ingurunearen nazioarteko auzitegia eratzekeko arrazoiak**

Abiapuntua garbi koka dezagun: ingurune-arazoek izaera internazionala hartu dutela argi dago. Horren aurrean, azaltzen zaizkigun neurriek bi bide paralelotan joan behar dute. Alde batetik, gobernuak konpromezu estuagoa hartu behar dute, eta bestetik, Nazio Batuen sistema berrestrukturatu

beharra dago organo berezi eta iraunkorrak sortuz, eta haien aurrean alderdi moduan parte hartzeko statusa gizabanakoei eta nazioarteko elkarteari zabalduz.

Giza-eskubideak arrezagutzean izandako prozesuari begirada bat botatzen badiogu, une honetan, bere helburua elkartasunari buruzko eskubideetara zabaltzen ari dela ikus dezakegu. Eskubide hauek bake-eskubidea, autodeterminazio-eskubidea eta ingurunearena izango lirateke. Esan behar da giza-eskubide horren subjektua gizabanakoa dela, ez Estatua. Datu hau azpimarratu behar dela uste dugu eta aurrerago ikusiko dugu nolako eragina duen.

Bi alderdi nabarmendu daitezke giza-eskubidearen edukia begiratzuz:

a) Lehenik, inguruneari buruzko informazioa lortzeko eskubidea. Egun nazioarteko gatazka larriak gertatzen ari dira; dudarik gabe eta zoritxarrez, etorkizunean ere gertatuko dira. Batzutan informazioa isilpekoa, konfidentziala, kontsideratzen da (adib. istripu nuklearretan, manipulazio genetikoan,...).

Esanak esan, erabakiak hartzeko ezinbesteko ukan beharra da jendeak ahalik eta informazio gehien eskuratu ahal izatea. Hori doktrinaren artean zabaldua dagoen ideia da.

b) Bigarren, prozesu administratibo eta judizialean parte hartzeko eskubidea. Ingurune mailan pertsona bakuna nahiz elkartea izan daiteke kaltetua (adib.: ura edo airea kutsatzen direnean). Kasu hauetan, bai gizabanakoak, bai organismo ez-gobernutarrek, eskubidea behar dute ikertzeko, eta legez aurreikusitako prozedurak erabiltzeko.

Baina lehen ere esan den moduan, giza-eskubide hori arrezagutzea ez da nahikoa. Eskubide horrek eragina izaterik nahi badugu, organo iraunkor eta berezi bat behar da: organo hori Kongresu honetan aztertu zen Ingurunearen Nazioarteko Auzitegia izan daiteke. Auzitegi honen bitartez lortu da ingurune-kalteen erantzukizuna zabaltzea eta kutsatzaile ordaintzaile printzipioa aplikatzea.

Jakina da Estatuak ez daudela prest, inolaz ere, subiranotasun lurraldetarra eztabaidatzeko. Ezin da ahaztu, ordea, beste datu bat: gaur egungo Estatuaren muga burokratikoaren barruan ezinezkoa da ingurune-problemei irtenbide egokirik ematea. Estatuaren arteko mugak "porotsuak" dira, eta herrialde bakoitzak bere lurraldean gertatutako egintzen gain izan dezakeen eragina gero eta txikiagoa da. Ideia honekin ez da kolokan jarri nahi aipaturiko subiranotasun lurraldetarra. Lortu nahi dena, beharrian berrien aurrean kontzeptu hori egokitzea besterik ez da.

Batzuen ustetan, ingurune-problema nazioarteko auzitegi baten eskuetan uzteak Estatuaren subiranotasuna arriskuan jartzea da. Beste batzuentzat, berriz, Estatuak jadanik galdua dute subiranotasuna ingurunearen eremuan. Arrazoia, honako hau da: ingurune-kalteei dagokienean, Estatu bakar bat ere ez da gai bere lurralde edo atmosfera babesteko. Kutsadurari dagokionez,

ez dago mugarik. Indarrak, beraz, bateratuak izan behar dira. Subiranotasuna era amankomun batean egikaritu behar da puntu honetan. Argi dago ingurune-arriskuak aurrebabestu beharra dagoela, arazoak sortu arte itxaron gabe. Baina, prebentzio neurri hauek erabili arren, kaltea berdin sortzea gerta daiteke. orduan, sortutako kalte hori konpondu eta medeatu behar da. Arrazoi horregatik, Ingurunearen Nazioarteko Auzitegiak alderdi berritzaile bat izango du: orain ditugun auzitegien akatsak ongituko ditu eta ingurune-arazoentzat neurri egokiak hartuko ditu.

## V. Ingurunearen nazioarteko auzitegiaren ezaugarriak

Hasera batean, Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegiaren barruan atal espezializatu bat sortzea proposatu zen. Ideia honen abantaila nazioarte mailan zeuden estrukturei probetxua ateratzea zen. Dena den, oztopoak ere ikusten zaizkio. Orain arte, Hagako Auzitegi hau inoiz ere ez da erabili ingurune-gatazkak zuzenean konpontzeko. Horrez gain, ingurune-gatazka hauek gero eta berezituagoak, espezializatuagoak, egin dira eta teknikoki ere konplexutzen, korapilatzen, joan dira. Hau delaeta, auzitegi iraunkor berri batek gai honetan eskumen eskusiboa izatea beharrezkoa dirudi.

Esan bezala, Auzitegi honen diseinua asmatzerakoan bi eredu izan dira kontutan, Elkarte Europarraren Justizia Auzitegia eta Giza Eskubideen Auzitegi Europarra. Horrela, Ingurunearen Nazioarteko Auzitegiaren Estatutua erredaktatu da. Estatutu honek hamar artikulua besterik ez ditu eta Auzitegiaren gain, Agentzia bat ere sortzea aurreikusi du Nazio Batuen sistemaren barruan.

Estatutoaren lehenengo zatia ingurunearen giza-eskubidea eta Estatuaren betebeharrak printzipio multzo baten bidez arautu ditu. Bigarrenak berriz, 9. eta 10. artikuluetan, Agentzia eta Auzitegia aurreikusten ditu, hurrenez hurren.

Agentziaren betebeharrak, ingurunearen aldeko ekimenak sustatu, zuzendu eta kontrolatu, estandarrak ezarri, eta hiru tero planetaren bilakaera ekologikoari buruzko txostena argitaratzea dira.

Auzitegiaren osaera eta betebeharrak, bestalde eta esan bezala, 10. artikuluan aurkituko ditugu. Hamasei pertsonak osatuko dute Auzitegia. Hauetatik hamabost epaile Nazio Batuetako Asanblada Orokorrek, zazpi urteetarako aukeratuko ditu. Bere aukera egin ahal izateko, aurretik, Idazkaritza Orokorrek zerrenda bat aurkeztuko dio Asanbladari. Hamaseigarren pertsona Auzitegiaren Lehendakaria izango da. Hau, zuzenean, Nazio Batuen Erakundeko idazkaritza Orokorrek aukeratuko du. Epaileek beraien jatorrizko Estatuenganako erabateko independentzia dute.

Auzitegi honen funtzioak ondoko hauek izango dira. Lehenik eta behin, ingurunea oinarrizko giza-eskubide moduan babestea. Hori nazioarteko elkartearen izenean egingo du. Funtzio nagusi honen ondorio izango dira jarraian datozen beste hauek:

— Ingurune-kalteak direla-eta, sortutako edozein gatazkatan bere ebazpen judiziala emango du. Ez du axola, maila honetan, sortzaileak pertsona publiko nahiz pribatuak izatea.

— Ingurune-arazo garrantzitsuen aurrean bere kontseilua emango du, eskaria Nazio Batuen organoetatik edo nazioarteko beste instituzioetatik datorrenean.

— Aipaturiko paper judizialaz gain, arbitraia-iana ere egin dezake.

— Azkenik, ingurune-arriskurik dagoenean ikerketa eta inspektzioaz arduratuko da, laguntza tekniko-zientifiko independente baten bidez; hori aurretik horrela eskaturik, nahiz ofizioz egin dezake.

— Bere funtzio hezitzailea ere nabarmentzekoa da.

Ikustarazten saiatu garenez, Auzitegi honek ez du suposatuko Hagako Auzitegiaren bikoiztapenik. Alderantziz, orain arte existitu ez den elementu berri bat sortu nahi da. Bere azken helburua pertsonak ingurune-problemen aurrean babestea izango da.

## **VI. Azkeneko plenoan izandako polemika eta konferentziaren amaierako balantzea**

Orain arte azaldutakoak Kongresuaren "argumentazio ofizial" deitu ditzakegunak dira. Ikusi denez, Ingurunearen Nazioarteko Auzitegiaren sorrera oinarritu eta justifikatzera zuzendurikoak, beraz.

Azkeneko Plenoaren barruan, bertan izan ziren guztien berrespen berezia izan zuen hizlarietako batek esanak. Hizlari hau Ramon Ojeda Mestre izan zen, Ingurune-Zuzenbidearen Akademia Mexikarraren Lehendakaria bera. Bere azken hitzaldian, Ojeda Mestrek orain arte izandako lau Konferentzietako eskarien alde agertu ondoren, beste ikuspuntu askoz ere errealistagoa aurkeztu eta mantendu zuen. Mexikar honek alperrikakotzat kalifikatu zuen helburu berdinarekin Kongresuak egiten jarraitzea. Bere ustez, doktrinaren aldetik esan beharrekoak esanak daude. Teorikoki, Auzitegiaren jadanik agorturik dagoen proiektua omen da. Juristek nahiz bestelako jakitunek lau bilkura hauetan mahai gainean utzi dituzten arrazoiak nahikoak omen dira. Orain Nazio Batuen Erakundeari dagokio erreleboa hartu eta proiektua aurrera eramatea.

Hori gertatu bitartean, eredu posible eta errealistago baten aldeko apustua egin behar da: Ingurunearen Arbitraia eta Adiskidetze aldekoa, alegia. Hain zuzen ere, Auzitegi honen ideia sortu eta IV. Konferentzia honetan aurkeztu zuena Demetrio Loperena Rota, E.H.U.-ko irakaslea, izan zen. Au-zitegi "alternatibo" hau bestea baino errazago eta azkarrago gorpuztu daiteke. Hau da, Nazio Batuen Erakundeak aldeko borondatea agertzeari itxaron gabe. Gure arreta azken agerraldi honetara zuzentzearen arrazoiak bere originaltasuna izan da eta, batez ere, bertan zegoen jendeak eman zion erantzun sutsua.

Konferentziaren antolakuntza ofizialak, dena den, bere Azken Txostenean ez zuen ezertarako ere aipatu agerraldi hori, ezta sortutako eztabaidarik ere. Dokumentu horrek aurreko Konferentzietan behin eta berriro errepikatutako eskariak mantendu besterik ez du egin.

Arbitraia eta Adizkidetze Auzitegiaren ideiak Venezia-ko azken Plenoan sortutako itxarobideak ikusi ondoren, gure kronika honen azkeneko puntuan bere berri ematea interesgarria izango litzatekeela iruditu zaigu.

## **VII. Ingurunearen nazioarteko arbitaria eta adiskiditze auzitegia sortzeko proposamena**

Lehenik eta behin, bere eginkizunik nagusiena finkatzea dagokigu. Eginkizun hau da. Estaten artean, partikularren artean edo Estatu eta partikularren artean sor daitezken ingurune-gatazkak konpontzea. Ikusten denez, hemen ere gainditu da Hagako Nazioarteko Auzitegiari jartzen zitzaion oztopoa, hau da, parte hartzeko aukera Estatuek bakarrik izatea.

Arbitraia eta Adiskidetze Auzitegi honen elementurik nagusiena Idazkaritza bat izango da. Idazkaritza honek bi zerrenda prestatuko ditu, bata adiskidetzailleena eta bestea arbitroena. Pertsona hauek, edozein herrialdetakoak izan daitezke eta, kategoria batekoak nahiz besteak, Zuzenbidean edo beste ingurune adar batean arrezagututako jakituria izan beharko dute.

Zerrenda bakoitza hamabost pertsonak osatuko dute eta sei urtetarako aukeratuko dira hasera batean, baina berriz ere, jarraian aukeratu ahal izango dira.

Hasieran esan dugun bezala, Ingurune-gatazkak konpontzen laguntzea izango da Auzitegi honen helburu nagusia. Helburu nagusi hori bete dezan hiru funtzio egozten zaizkio:

a) Ingurune-arazoan aurrean duen iritzi juridikoa agertzea. Bere ikus-puntua edozein organismo publiko nahiz pribatuk, nazional edo nazioartekok eskatu dezake. Horretarako, bere eskaria Idazkararitza Orokorrari idatziz aurkeztu beharko dio. Eskaria hartutakoan, Idazkaritzak bere zerrendetako izenak jakinaraziko dizkio organismo horri honek iritzia zeintzuk ematea nahi duen esan diezaion. Bere iritzia behar bezala eman ahal izateko, Auzitegiak beharrezko informazioa edo dokumentazioa eska diezaioke edozein organismori (hemen ere, organismoa publikoa, pribatua, nazional edo nazioartekoa izan daiteke). Irizpena publikoa izango da, eskatzaileak espreski ez badu alderantzizkorik esan behintzat.

b) Adiskidetze-lana egitea. Lehen aipatutako subjektu berdinek eskatu ditzake lan hori, hau da, edozein organismo publiko nahiz pribatuk, nazional edo nazioartekok. Eskaria Idazkaritza Orokorraren aurrean aurkeztuko da, baina gero, honek beste alderdiari eskari horren kopia bidali beharko dio.

Eskaria hartutakoan, Idazkaritzak ikusi beharko du bere eskumenpeko arazoa den edo

ez



planteatu zaiona. Hala bada, epe laburrean, Adiskidetze-Batzordea sortuko da. Batzorde hau adiskidetzaille zenbaki bakoiti batek osatuko du, alderdiek eskatutako moduan. Alderdien artean akordiorik ez balego, hiru adiskidetzaillek osatuko lukete, alderdiek bana, bakoitzak berea, izendatuko lukete eta hirugarrena (Batzordearen lehendakaritza-lana egingo lukeena) bien artean aukeratu beharko lukete. Batzordeak Alderdien arteko desadostasunak zeintzu diren finkatu beharko ditu eta bien arteko akordia lortzen saiatuko da. Hori ezin badu lortu, prozedura amaitu dela deklaratu ondoren, Akta idatziko du, bertan gatazka ezin izan dela konpondu adieraziz.

c) Arbitraria-lana egitea. Prozedura has dezaketen subjektuak, baita eskari-prozedura ere, adiskidetze-suposamendukoak berdinak dira. Eskaria hartutakoan, hemen Arbitraia-auzitegia eratuko da (hau ere arbitro zenbaki bakoitiak osatuko du, alderdiek adostuko duten moduan). Printzipioz, alderdien autonomiak jokatu du (ekitatearen arabera ebatz dadin erabakiko balute, hala egingo litzateke), beti ere Zuzenbide aplikagarria salbu. Akordiorik ez balego, Auzitegiak gatazka nazioarteko arauen arabera ebatziko du, eta ingurunea babesteko beharrezkoa irudituko balitzaio, Auzitegiak Estatuari behinbehineko neurriak hartzea gomenda diezaieke ere. Erabakiak gehiengo absolutuaren bidez hartuko dira, Laudoa idatzia izango delarik eta Auzitegiari aurkeztu zaizkion arazo guztiei erantzun motibatua eman beharko dielarik (alde botatu duten arbitro guztien sinadura eraman beharko du). Idazkari Orokorak Laudoaren kopia ziurtatua bidali beharko dio alderdi bakoitzari eta Laudoa interpretatzerako garaian desadostasunik balego, bi alderdietariko edozeinek argitzea eska dezake idatziz.

Esan dugunez, Arbitraia eta Adiskidetze Auzitegi hau erabat Nazio Batuen Erakundetik kanpo geratzen da. Horregatik, konferentzia horretan egon diren juristen eskuetan geratu zen proposamen hau aurrera eramatea.